



ORIOKO UDALA

ORIOKO KULTURAREN EGOERAREN PLAN ESTRATEGIKOA (OKEPE)

ORIOKO KULTURAREN DIAGNOSTIKOA



Aurkibidea

1. Sarrera
2. Helburuak
3. Informazio-iturriak
4. Denbora-lerro partekatua
5. Egoeraren diagnostikoa
 - 5.1. Orioko datu soziodemografikoak
 - 5.2. Orioko herritarren kultur eragiletza eta kultur kontsumoa
 - 5.3. Orioko udalaren kultur politikak, programazioa eta herriko agenda
 - 5.4. Kultur eragileen osasuna eta harremanak
 - 5.5. Kultur baliabideak
 - 5.6. Eragileen behar nabarmenenak eta etorkizuneko erronkak
6. Ondorioak

1. Sarrera

Kultur dinamika bizia du Oriok, baina Udalak, hala ere, premiazkoa ikusi du hausnartzeko tarte bat hartu eta herriko kulturaren egoera orokorraren azterketa egitea.

Izan ere, herriko kultur dinamika zabala, bizia eta handia izanagatik, dinamika modu sakabanatuan, eta elkarlan eta koordinazio handirik gabe ematen da sarri.

Orioko Kultur Egoeraren Plan Estrategikoak –OKEPE, aurrerantzean– herriko kultur panoramaren etorkizuna ardaztu nahi du. Gogoetarako prozesu parte-hartzailea izateaz gain, kulturaren egoera jaso eta etorkizuneko proposamena egitea du xede.

Plan Estrategikoak honako gaiak ditu aztergai:

- Kultur eragileen osasuna eta eragileen arteko elkarlan-dinamikak.
- Kulturara bideratzen diren baliabide ekonomikoak eta bestelako baliabideak.
- Kultur azpiegiturak eta ekipamenduak.
- Kultur agenda, programazioa, zabalkundeak.
- Orioko kulturaren zeharkakotasuna (belaunaldiartekotasuna, ingurugiroa, kulturartekotasuna, euskara, feminismoa...)

Eta, hain zuzen, txosten honetan, gai hauei guztiei erreparatuz, Orioko kulturaren egoeraren diagnostikoa jaso da. Egungo egoeraren argazkia egiteaz gain, aurrera begirako ikuspegia ere bildu nahi izan da.

2. Helburuak

Diagnostikoaren helburu orokorra: Orioko kulturaren egoeraren inguruko **diagnostikoa egitea, udalaren, herritarren eta herriko kultur eragileen artean;** herri-mailako gaur egungo egoeraren argazkia ezagutzeko.

Hain zuzen, horretarako, **zehazki**, honakoa nahi da:

- Orioko udalaren kultur politikak eta eragileei zuzendutako baliabideak zein diren aztertzea eta horien baliagarritasunaren inguruan gogoetatzea.
- Herriko kultur azpiegituren egoera aztertzea eta hobekuntza proposamenak egitea.
- Udalaren egungo kultur programazioan dauden hutsuneak eta horiei erantzuna emateko sustapen-estrategiak identifikatzea.
- Herriko eragileek beren eguneroko jardunean dituzten beharrak zein diren aztertu eta identifikatzea.

Diagnostiko-fase honetan, **zeharka**, berriz, honakoa lortu nahi da:

- Orioko kulturari bestelako ertz batzuetatik ere erreparatzeko tresnak eskaintzea eta hori posible egitea, hala nola genero-ikuspegia eta ikuskera feminista; kulturartekotasunaren ikuspegia, Orioko aniztasunean arreta jarritz; hizkuntzak, euskararen erabilera bermatzeko eta lehentasunezko trataera emateko; belaunaldiartekotasuna eta adin-tarte guztientzako kultur eskaintza bermatzeko; ingurugiroarekiko errespetuzkoa den kultur programazioa bermatzea.
- Kulturaren balio-kate osoan eragina duten ikuspegi bidez eragileen arteko harremanak gerturatzea eta elkarrekin estrategikoki etorkizunaren inguruan pentsatzen hastea.

3. Informazio iturriak

Diagnostikoaren lanketan **hiru informazio-iturri** ezberdin baliatu dira:

Batetik, **datu-iturri ofizial kuantitatiboak**, hala nola:

- Eustateko (Euskal Estatistika Erakundea) zenbait datu, herriko errealitate soziodemografikoa islatzeko.
- Orioko Udaleko datuak, Kultura saileko datuen berri jasotzeko (giza baliabideak, aurrekontua, udal-ekipamenduak...).

Bestetik, **kulturaren arloan inplikatuta dauden ikuskerak**: Hain zuzen, kulturaren arloan zeresana duten norbanako eta eragileen ikuskerak bildu dira; bai talde-dinamiken bidez, bai zuzeneko elkarrizketa bidez ere.

Talde-dinamiketan 38 pertsonak hartu dute parte (20 emakumezko eta 18 gizonezko); Orioko kultur eragile desberdinen ordezkari gisa, gehienek, eta sortzaile, musika-talde edo norbanako kultur zale gisa, besteek. Zuzeneko elkarrizketen bidez, aldiz, Orioko azpiegitura eta kultur zerbitzuen ardura dutenak eta udal-taldeak elkarrizketatu dira.

Azkenik, **Orioko herritarrei zuzendutako galdetegia**: galdetegia zabaldu da, online, eta 62 pertsonak erantzun dute.


Talde-dinamiketan parte hartu dutenak	Zuzeneko elkarrizketetan parte hartu dutenak
<ul style="list-style-type: none"> • Salatxo abesbatza • Harribil dantza taldea • Danbolin musika eta dantza eskola • Talai Mendi elkarte • Txurrunuski aisialdi elkarte • Etxeluze Gaztetxea • Ostargi Elkarte • Txaranga • Trikitixa taldea • Talai Mendi Dantza eskola • Errikotxia bertsozale taldea • Lera Taldea (euskal mitologia elkarte) • Herriko banda • Garmendiazpi auzo elkarte • Herrio natur taldea • Saregile • LGBTIQ+ kolektiboa • Zainbizi Elkarte • BOX erabiltzaileak • Norbanakoak 	<ul style="list-style-type: none"> • Kultur Etxeko arduraduna • Liburutegiko arduraduna • Musika Eskolako zuzendaria • EH Bildu udal-taldea • EAJ-PNV udal-taldea

3. Informazio iturriak

Online galdetgia erantzun dutenen profila honakoa da:

Adinari dagokionez, oro har, adin guztietako pertsonak erantzun duten galdetgia. Hain zuzen:



- Erantzun dutenen gehiengoak (% 58) 31-50 urte artean ditu.
- 30 urtez azpikoak ia % 18 (11 pertsona) dira
- 51 urte baino gehiago dituztenak % 24 (13 pertsona) dira.



Generoari dagokionez: inkesta erantzuten gehiago izan dira emakumezkoak (% 73) gizonezkoak (% 27) baino.

Lan-egoerari dagokionez:

- Erantzun dutenen erdia baino gehiago besteren konturako langileak dira (% 55), eta %16 autonomoak.
- % 14 erretiratuta dago, eta beste % 11, aldiz, ikasleak dira.






3. Informazio iturriak

Online galdetgia erantzun dutenen profila honakoa da:


Jaioterriari eta bizilekuari dagokionez:

- Galdetgia erantzun dutenen gehiengoa Orion jaioa da (% 64).
- % 29 Gipuzkoako beste herri batean jaio da, % 5 Euskal Herriko beste herri batean, eta % 2 Espainiar Estatuko beste herri batean.
- Orion jaio ez, baina, Orion bizi direnen kasuan, gehiengoak 5 urte baino gehiago daramatza herrian bizitzen (% 86), eta gainontzeko %14ak 1-5 urte artean

Azkenik, **kultur eragiletzari dagokionez**, galdetgia erantzun dutenen erdia baino zertxobait gehiago (% 58, hain zuzen) ez da Orioko kultur elkarte edo talderen bateko kide.



4. Orioko kulturaren denbora-lerro partekatua





5. Egoeraren diagnostikoa

5.1. Orioko datu soziodemografikoak

Orioko biztanleriaren bilakaera (orokorra, generoaren arabera)

- Orioko biztanleriak azken urteotan jasandako bilakaerari erreparatuta, ikus daiteke, orotara, gero eta jende gehiago bizi dela herrian: 2017tik 2023ra 187 lagun gehiago. Hala ere, esanguratsua da 2021etik 2022ra biztanleriak beherakada bat izan zuela (36 biztanle) eta 2022tik 2023ra gorakada (60 biztanle gehiago).
- Generoari erreparatuz, urtez urte gehiago izan dira oriotar gizonezkoak emakumezkoak baino.





5. Egoeraren diagnostikoa

5.1. Orioko datu soziodemografikoak

Orioko biztanleriaren bilakaera (adinaren arabera) eta atzerrian jaiotako biztanleriaren bilakaera (%)

- Adin taldeka aztertuta, ikus daiteke 0-19 gorako taldean beherakada egon den bezala (2017tik 2023ra 26 biztanle gutxiago); 65 urtetik gorako taldean gorakada nabarmena dela: 2017an 982 herritar ziren, eta 2023an, berriz, 1.095 (hau da, 113 gehiago). Hortaz, baiezta daiteke Orio gero eta herri helduagoa dela.
- Atzerrian jaiotako oriotarren kopurua ere urtez urte hazi egin da. 2017an biztanleria guztiaren % 9,2 ziren eta 2023an, berriz, % 11,6.




5. Egoeraren diagnostikoa

5.2. Orioko herritarren kultur eragiletza eta kultur kontsumoa


Orioko kultur eragile eta elkarten lanaren gaineko ezagutza

Orioko kultur eragile eta elkarten lanaren gaineko ezagutzari buruz galdetzean, **batez besteko ezagutza 6,55 da.**




Kultur praktikak: parte-hartzea eta kontsumoa

Herritarrei, urtean, gutxi gorabehera, parte hartzaile gisa eta hartzaile (entzule-ikusle) gisa parte hartzen duten ekintza kopurua adierazteko eskatu zaie. Batez beste, oriotarrek, ia bi aldiz gehiago hartzen dute hartzaile gisa parte, parte hartzaile aktibo gisa baino.



5. Egoeraren diagnostikoa

5.3. Orioko udalaren kultur politikak, programazioa eta herriko agenda




5. Egoeraren diagnostikoa

5.3. Orioko udalaren kultur politikak, programazioa eta herriko agenda

Herriko kultur eskaintzari buruzko iritzia: orokorra

Orioko kultur eragileen eta Udalaren elkarlanaren bitartez osatzen den herriko kultur eskaintzari erreparatuz gero, galdetegia erantzun dutenen arabera:

- % 56arentzat herriko kultur eskaintza aberatsa edo oso aberatsa da.
- Beste ia % 30arentzat indargune bezainbeste ahulezia ditu.
- Eta % 14arentzat eskasa edo oso eskasa da.



Iritzi pertsonalak		
Aberatsa - Oso aberatsa	Indargune bezainbeste ahuleziarekin	Eskasa - Oso eskasa
<ul style="list-style-type: none"> - Herri txikia dela kontuan hartuta, eskaintza aberatsa, anitza, bizia, zaindua eta zabala da. - Publiko zabalari begira antolatutakoa; jende askorengana iristen dena. - Pandemiak geroztik, aurrerapena eman da eskaintzan. - Beti dago hobetzeko aukera ikuspegi intersektionala kontuan hartuz. - Agenda sortzeko eta koordinatzeko udalaren eta eragileen lana goraipatzekoa da. - Antolatutako ekintzetan oriotarrek ondo erantzuten dute. - Gaztetxearen eskutik lanketa handiagoa egin da. - Euskarari garrantzi handia ematen dio udalak. 	<ul style="list-style-type: none"> - Gaztetxoak hanka motz gelditzen dira. - Ekintza gehiago egiteko aukera dago. - Baliabideak eta herriaren tamaina tarteko, eskaintzen dena beharbada ez da guztien nahiei erantzutera iristen. - Zinema, antzoki edo erakusketa areto bat faltan sumatzen da. - Ekintzen artean aniztasun gehiagok egon behar luke. 	<ul style="list-style-type: none"> - Eskaintza kulturala eskasa hautematen da, bereziki, antzerki eta kontzertu aldetik. - Azken urteetan ekintzetan gorakada egon bada ere, eskaintza urria da. - Ekitaldien antolaketa hobetu behar da. - Ez dira adin eta interes guztiak kontuan hartzen. Zenbait elkarte begirada herritarrekiko ireki beharko lukete programatzerakoan interes edo gustu partikularrak kontuan izan beharrean.

5. Egoeraren diagnostikoa


5.3. Oriko udalaren kultur politikak, programazioa eta herriko agenda

Herriko kultur eskaintzari buruzko iritzia: balorazio zehatza

Herriko kultur eskaintza baloratzeko orduan, -1 balorazio baxuena izanik, eta 10, altuena- oriotarrek gehien baloratzen dituzten alderdiak ekitaldi kopurua (6,39/10); ekitaldien aniztasuna (6,20/10) dira.

Segidan, musika eskaintza (5,98/10); kaleko ekitaldien eskaintza (5,95/10); aretoko ekitaldien eskaintza (5,75/10) eta hitzaldi eta proiektzioak (5,69/10) baloratzen dituzte gehien.

Eta balorazio baxuena dutenak, ostera, dantza eskaintza (5,39/10); literatura eta bertsolaritza, eta antzerki eskaintza (5,11/10 biak) dira.



5. Egoeraren diagnostikoa

5.3. Orioko udalaren kultur politikak, programazioa eta herriko agenda

Kultur eskaintzari buruzko iritzia: une, festa, egun.. erreferentziala



San Nikolas jaiak, adin eta izaera desberdineko herritarrentzako ekintzak izaten direlako.

Herribil. Herriko kultur talde ezberdinek batera egiten duten ekitaldia.

Balearen Eguna: Herritarren parte hartze handia dagoen eguna.

Gazte Festak, autokudeaketagatik eta herritarren parte-hartzeagatik

Kukuarri eguna, natura eta kirola elkartzen dituelako

Kontxa: Jendeak Orion pasioz bizi duelako egun hori

Arrantzale eguna, herritarrek bultzatutako eguna delako. Jende ugari parte hartzen du eta oso polita da

Olentzero eta Mari domingiren etorrera: Herria oso jantzita egoten delako. Xarma handiko ikuskizuna


5. Egoeraren diagnostikoa

5.3. Oriko udalaren kultur politikak, programazioa eta herriko agenda

Herriko kultur eskaintzari buruzko iritzia: gabeziak

Ekitaldiak eta xede-taldeak (gaztetxoak, helduak, hirugarren adinekoak...) aintzat hartuta ekitaldiak faltan non nabaritzen dituzten galdegin zaie galdetegia erantzun duten herritarrei.

Erantzunei erreparatuz, gehienek, gazte eta gaztetxoei zuzendutako ekitaldietan nabari dituzte gabeziak. Erantzun duten erdiek baino gehiagok (% 54,1) uste du gazteentzako ekitaldiak falta direla, eta % 47,5ak gaztetxoentzakoak. Erantzun dutenen % 32,8ak eta % 29,5ak, aldiz, helduentzako eta hirugarren adinekoentzako ekitaldiak sumatzen ditu faltan, hurrenez hurren; eta, azkenik, % 11,5ak ez du ekitaldirik faltan nabari.



5. Egoeraren diagnostikoa

5.3. Oriko udalaren kultur politikak, programazioa eta herriko agenda

Herriko kultur eskaintzari buruzko iritzia: gabeziak

Helduei begira: zinema; antzerki ikastaroa; ikus-entzunezkoak (zinea...); garai desberdinetako musika-estiloak...

Haur eta gaztetxoei begira: Festetan, musika arratsaldez; antzerkia,; eskulanak; haur zinema hilabetean behin neguan; pintura eguna, sukaldaritza tailerra, ume festak; haurrentzat negurako ekintzak toki estalian; galdetu gaztetxoei zer nahi duten...

Oro har, guztientzat edota xede-taldea bereizi gabe: Kultur eskaintza belaunaldiarteko parte hartzaileak, mus-txapelketa, Dj-ak, gorputz adierazpena, dantza ikastaroak; antzerki-tailerrak; zinema programazio egonkorra (komertziala zein independentea); bertsoak; euskal musika; antzerkia...

Gazteei begira: Gazteria sailarekin elkarlanean lanketa bat egitea gazteen parte-hartzeari buruz, kulturari eta kulturatik kanpo; Gazte eta gaztetxoentzat espazio eta jarduerak; sukaldaritza, podcast, laburmetraia... Lehiaketak; kontzertu itxiak; ikuskizunak kalean...


Hirugarren adinekoei begira: hitzaldiak, dantzaldiak, mugikortasun saio musikatuak, ...

5. Egoeraren diagnostikoa

5.3. Oriko udalaren kultur politikak, programazioa eta herriko agenda

Herriko kultur eskaintzaren berri jasotzeko bideak

Erantzunei erreparaturaz, biderik erabilienak hedabideak (erantzun dutenen % 69ak erabiltzen du bide hau) eta sare sozialak (% 62ak erabiltzen du honakoa) dira. % 61ak, berriz, kaleko informazio-panel eta kartelen bidez izaten du eskaintzaren berri. Azkenik, % 59 dira agenda euskarri fisikoan etxean jasotzen dutela diotenak, eta % 54k lagunek, etxekeok edo ingurukoek komentatuta izaten dute eskaintzaren berri.




5. Egoeraren diagnostikoa

5.3. Oriko udalaren kultur politikak, programazioa eta herriko agenda

Kultur eskaintzaren zeharkakotasuna

Kultura ez da zerbait isolatua, eta kultur politikak ere ez dira estankoak; hori horrela, OKEPEk azpimarra berezia egin nahi izan du kulturaren zeharkakotasunean. Hain zuzen, bost elementu hauetan egin nahi du azpimarra: belaunaldiartekotasuna; euskara eta euskal kultura; kulturartekotasuna; genero-berdintasuna; eta jasangarritasuna.



5. Egoeraren diagnostikoa

5.3. Orioko udalaren kultur politikak, programazioa eta herriko agenda

Kultur eskaintzaren zeharkakotasuna

Zeharkako ertz horiek guztiak (belaunaldi desberdinen arteko kohesioa eta harremana, euskara, feminismoa, aniztasuna, kultura-aniztasuna, ingurumenarekiko ardura...) herriko jardunean integratzeko eta begirada horiek bermatzeko hartu beharreko neurri posibleak jaso dira:

Bereziki **hizkuntza-kudeaketari, kultura-aniztasunari eta genero-berdintasunari lotuta**: antolatzen diren ekintza guztiak euskaraz izatea eta herrian dauden talde guztiekin urtean behin elkartzeari; bestelako hizkuntzak ez "demonizatu" eta ulergarritasuna bermatu edozein herritar gerturatzeko gutxienez. Etengabeko pedagogia; euskara ikasten ari direnentzako berriazko ekitaldiak antolatu AEKrekin elkarlanean; erreferente emakumezko, arrazializatu eta estereotipoak apurtzen dituztenak sustatu; euskaraz izatea nahi badugu, eremu pribatutik antolaturiko ekitaldiak, aire librean egiten direnak, euskaraz izan daitezzen sustatu...

Bereziki **belaunaldiartekotasunari** lotuta: zaharretako tabernan euren proposamenak jasoko dituen kaxa bat jarri; ostiral iluntze/gauetako kultur etxeko eskaintzaren publikoa belaunaldiartekoa izan da, antzerkia, rock kontzertua edo piano kontzertua izan. Eskaintzaren maiztasunak ohitura sortu zuen eta ohitura sortuta belaunaldiartekotasuna lortu da. Dinamika polita sortu zen; belaunaldi guztiei gustatzen zaizkien jarduerak egin beharko lirateke; herriko adinekoek dituzten ezagutza tradizionalak transmititzeko espazioak sortuko nituzke. Baserritar, arrantzale, arotz, artisauen ezagutza erdigunean jarrita; Gazteei lekua utzi eta beraiek kultur eragileengandik ikasten has daitezzen, Orioko kultur ekintzei jarraipena emateko. Beraien parte-hartzea sustatu, eskolaren laguntzaz eta sare sozialen bidez informazioa hedatuz...

Bereziki **jasangarritasunarekin** lotuta: material denak berrerabilgarriak jarri; ekitaldiak jasangarriagoak izateko protokoloak ezartzea (badaude eskura); dibulgazio zientifikoa ere ekitaldietan txertatzea, kulturaren zati delako; ekitaldietan eskaintzen diren jakiak, nahitaez, herriko dendan edota inguruko baserri zein baratzeetatik erosten dela bermatzea...

5. Egoeraren diagnostikoa

5.3. Orioko udalaren kultur politikak, programazioa eta herriko agenda

Kultur eskaintzaren zeharkakotasuna

Bereziki **gubernantzari eta elkarlanari** lotuta: *herriko talde eragile bat sortu, eta elkarren artean (udala, kultur sortzaileak, herritarrak...) urtez urteko plan estrategiko bat landu; kultur mahaia sendotu eta parte-hartzea handitu eta pluralagoa egin; eragileen artean elkarlana sustatu; uste dut garrantzitsua dela elkarleen arteko kontaktu gehiago eta elkarrekin eta udalaren bitartez, gai desberdin orori pareko garrantzia ematea; kultur mahaia indartu...*

Oro har, **zeharkako neurri gisa eta gai bat baino gehiagori lotuta**: *jarduera bakoitzaren helburu nagusia zein den argi izanda, beharbada, beste baldintza batzuk ezin izango dira jarri maila berean. Esaterako: kulturartekotasuna baldin bada ekintza edo aktibitate baten xede nagusia, agian ezin izango da uneoro euskara hutsean aritu... Irizpideak argi izan, baina lehenetsiz xede nagusia; beste herrietako praktika onak ekarri; gai desberdinak jorratzen dituen zinema-zikloak egin, bertan kolektibo zein kultura aniztasuna gailentzen diren programaketak egin; bi ikastetxeetan umeei, musika ikasgai dutenean eta denbora librean, kantuan trebatu eta txikien abesbatza bat lortu; udalaren gidaritzapean eta eragile guztiekin kultur eskaintzaren itun bat egin antolatuko diren ekitaldiei baldintzak jartzeko (jasangarritasuna, hizkuntza, feminismoa...); azken urteetan eman diren pausuak egonkortu eta sakondu; artisten egonaldiak hartu daitezke herrian beken bidez. Horrek aukera eman dezake herriari lotutako obra berritzaileak sortzeko eta egungo gaiekin erabat lotuta; eskaintza eta funtzionamendurako dekalogoak sortu; herritarrak aktibatuz; komunikazioa eta elkarlana; programatzen diren ekitaldiak ahalik eta adin tarte zabalenarentzat izan daitezela; herritar anitzen parte hartzea bai kultur eskaintzaren diseinuan bai ekintzetan; herritar guztien gustu, behar, ahalmenak... barneratzen dituen kultur eskaintza anitza egotea...*

5. Egoeraren diagnostikoa

5.3. Orioko udalaren kultur politikak, programazioa eta herriko agenda

Kultur eskaintzaren zeharkakotasuna

Herriko eragileak (**kulturaz harago lanean dabiltzanak**, bereziki aipatutako zeharkako gaietan) ikuspegi hauek bermatzeko eta bidea egiteko aliatu izan daitezke. Hain zuzen, eragile hauek, Orioko kulturara, aurrera begira ere, **honako ekarpenak egin ditzaketela adierazi dute:**

Urrutira begiratzeko ohitura, epe luzerako begirada

Pedagogia gehiago, une oro eta ekintza oro ikuspegi feminista presente edukitzeko

Elkarlana hobetzea edo areagotzea

Kontzientziak piztu

Askatasuna. Espazio seguruen sorrera

5. Egoeraren diagnostikoa

5.3. Oriko udalaren kultur politikak, programazioa eta herriko agenda

KULTUR POLITIKEN, PROGRAMAZIOAREN ETA HERRIKO AGENDAREN INDARGUNEAK

- Euskara: kultura arnasmune: euskarak presentzia handia du.
- Gaztetxea, erreferente: ekitaldi asko antolatzen dira.
- Kalea, kulturaren bilgune.
- Udalarekiko harremana, elkarlana eta parte-hartzea. Lan dinamikak asko hobetu dira, elkarlana zaindu eta hobetu egin behar da.
- Jasangarritasunaren trataera: kontzientzia asko zabaldu da.
- Komunikazioa eta zabalkundea: aldaketa nabarmena izan da.
- Udalak zein eragileek egindako programazio oparoa eta aberatsa: programazio potentia dagoela uste da.
- Aniztasunaren kudeaketan, belaunaldiartekotasunean eta berdintasunean urratsak eman dira.

KULTUR POLITIKEN, PROGRAMAZIOAREN ETA HERRIKO AGENDAREN HOBETZEKOAK

- Euskara, hizkuntza-kudeaketa eta herriko ondare sozialaren transmisioa kezka sortzen duten gaiak dira.
- Ekintzen programazioa eta programazioaren hedapena: gain-programazioa egoten da, sarri. Herriko sortzaileei lehentasuna ematearen garrantzia azpimarratu da.
- Festa ereduaren eta aurrekontuaren inguruko hausnarketa
- Herritarren aktibazioa eta gazteengana heltzea, erronka
- Gaztetxeko asistentzia
- Iruditeria komun baten lanketa festetarako (zapi bat, blusa bat...)
- Berdintasuna ikuspegi zabaletik ulertu beharra
- Etorri berrien integrazioa, kultur arloan ere erronka
- Aisialdirako aukerak: kultur eskaintzaren alde egin dezaten haur eta gazteek

5. Egoeraren diagnostikoa

5.4. Kultur eragileen osasuna eta harremanak

Oparoa da kulturaren ekarpena egiten duen herriko eragile-ehuna; ikastetxeek, elkarte historikoek, talde txikiek, handiek, norbanakoek... osatua.

ERAGILEEN ZEIN UDALAREN ETA ERAGILEEN ARTEKO HARREMANEN INDARGUNEAK

- Elkarlanerako prestutasuna: laguntza eskatu gero, erantzuna dago.
- Belaunaldiartekotasuna eta saretzea: harremanetarako bide. Adin ezberdinetako jendea biltzen dituen elkarteak daude; herri txikia izatea indargune da horretarako.
- Udalarekin harremana, indargune: Asko hobetu da kultur teknikariaren aldatetarekin.

ERAGILEEN ZEIN UDALAREN ETA ERAGILEEN ARTEKO HARREMANEN HOBETZEKOAK


- Jendea inplikatzeke zailtasunak: belaunaldi berrien inplikazioa nabaritzen da faltan batik bat
- Kultur eragile eta taldeen arteko saretzea eta elkarlana areagotzea: indarrak batzea premiazkoa da
- Gain-programazioari aurre egitea: koordinazioaren garrantzia
- Udalaren laguntza teknikoa eragileei
- Herrigintzan erreleboa

5. Egoeraren diagnostikoa

5.5. Kultur baliabideak

Orioko zerbitzu eta kultur ekipamenduen erabilera

Herritarrei galdegin zaie ea udalak kudeatutako zein zerbitzu/ekipamendu erabiltzen dituzten. Erantzunei erreparaturaz, erabilienak Kultur Etxea eta Kanean antolatzen diren emanaldiak dira. Segidan, Salatxo Aretoa eta Udal liburutegia, eta, gutxien, aldiz, Danbolin Musika eta Dantza Eskola eta KTA (Kosta Tailerra).



5. Egoeraren diagnostikoa

5.5. Kultur baliabideak

BALIABIDEEN INDARGUNEAK

- Baliabide ekonomikoetara guztiek dute sarbidea
- Azpiegiturak eta lokalak: guztiek dute espazioa eskuragarri
- Potentziala duten espazioak daude herrian (Arraunetxea, kanpo-espazioa, Gaztetxea...)


BALIABIDEEN HOBETZEKOAK

- Espazioa eta materialaren kudeaketa
- Dirulaguntzak eta udaletik bideratutako baliabide ekonomikoak (klausulak txertatzea, baldintzak ezartzea...)
- Ohiko dirulaguntzez harago, bestelako baliabide ekonomikoak (bekak, adibidez)

5. Egoeraren diagnostikoa

5.6. Eragileen behar nabarmenenak eta etorkizuneko erronkak

Talde-dinamiketan, eragileen beharrak jaso dira, eta herritarrei online galdetegiaren bitartez galdetu zaie ea zeintzuk diren aurrera begira Oriok kulturaren arloan dituen erronka nagusiak.



6. Ondorioak

Orioko errealitate soziodemografikoa aldatzen ari da; beraz, kulturak ere errealitate berriari erantzun behar dio.

Herri txikia izanagatik, Orioko kultur eskaintza aberatsa, zaindua eta zabala da. Hala ere, beharrekotzat jotzen da programazioa zabaltzea eta dauden hutsuneei erantzuna emateko sustapen-estrategiak zehaztea.

Eragileei zuzentzen zaizkien baliabide ekonomikoak, oro har, egoki baloratzen badira ere, kulturaren bueltan sorkuntza sustatzeko bestelako bideak aktibatzea egokia izan daiteke.

Eragileek kultur ekosistema aberatsa osatzen dute Orion. Eragileen hiru behar nagusiak espazioa, elkarlana eta herritarren aktibazioa dira.

Orioko kultur jardunaren indarguneetako bat da euskara, eta herriko kultur eskaintza, oro har, arnagune da.

Herrian kultur azpiegitura berri baten beharra eragile eta herritar guztiek partekatutakoa da. Ekipamenduen erabileraren eta hobekuntza proposamenen inguruan egindako hausnarketak oinarri, epe laburreko erabilerak eta egin beharreko esku-hartzeak definitzea komeni da.

Kultur arloan udaletik egiten den komunikazioa eraginkorra da. Hala ere, kanpo- zein barne-komunikazioan urratsak ematea komeni da; koordinazioa hobetzeko, eragileen jarduna sozializatzeko zein gain-programazioa saihesteko.

Kultur eragileen eta udalaren jardunean presente daude zeharkako begiradak (kulturartekotasuna, jasangarritasuna, feminismoa...); ez, baina, maila berean. Hori horrela, urratsak ematen jarraitzea beharrezkoa da.

6. Ondorioak

Oriko errealitate soziodemografikoa aldatzen ari da; beraz, kulturak ere errealitate berriari erantzun behar dio.

Oriko errealitate soziodemografikoa urtez urte ari da aldatzen:

- 2017tik 2023ra herriko **biztanle kopurua hazi** egin da.
- **Jatorri atzerritarra** duten herritarrak ere **gero eta gehiago** dira.

Errealitate horrek, **erronka berriak sortu ditu kulturari dagokionez ere**, besteak beste, aniztasunaren kudeaketa, pentsamendu, ideia eta mundu-ikuskera askotarikoak dituzten pertsonen arteko elkarbizitza artikulatzea, herriko nortasuna eta ondare immateriala zaintzea, euskararen eta euskal kulturaren transmisioa bermatzea...

Gainera, **udaletik bideratutako baliabideak sendotu eta egokitu** egin beharko dira, kultura arlokoak barne.




6. Ondorioak

Herri txikia izanagatik, Orioko kultur eskaintza aberatsa, zaindua eta zabala da. Hala ere, beharrekotzat jotzen da programazioa zabaltzea eta dauden hutsuneei erantzuna emateko sustapen-estrategiak zehaztea.

Programazioa zabaltzeko orduan, kontuan hartu beharko lirateke **diagnostikoan zehar jasotako ideiak**:

- **Gaztetxo eta gazteentzako ekitaldiak** dira oriotarrek **faltan gehien nabari** dituztenak. Gaztetxo eta gazteen adin-segmentuetarako proposamen zehatzak jaso dira, hala nola, festetan musika, antzerkia, zinema, gazteen eta udalaren artean parte-hartze eta elkarlan kanalak, festetan txaranga, espazio eta jarduera zehatzak (sukaldaritza, podcastak, film laburrak...)
- Musika eta bertsoaz gain, akaso fokuetatik aparteago dauden **bestelako diziplinei toki egitea** proposatu da: literatura, antzerkia, zinema (berreskuratzea proposatu da), argazkigintza, eskultura...
- Ekitaldi handiak baino, **kalean giroa sortzen duten jarduerak lehenestea** (musika, kantua, janari txapelketak...), bai festetan, eta bai urtean zehar.
- **Herriko sortzaileei plaza** eskaintzea
- Herrian entseatzen duten taldeei urtero herrian bertan jotzeko plaza eskaintzea eta dirulaguntzak jasotzen dituzten eragileei urtero bueltan ekitaldiren bat antolatzeko **konpromisoa hartzeko eskatzea**.
- Oriok **itsas kulturarekin duen lotura aprobetxatzea**, eta itsas ofizioekin eta itsasoarekin lotutako jarduerak antolatzea; egun puntualak (Bisigu Eguna, kasu) harago.
- **Tokiko ekonomiari ekarpena** egingo dieten ekintzak: herrian ekoizten diren proiektuei lotuta azokak, jarduera kulturalak...
- Bidaiak egin dituzten herritarrei, eta jatorri atzerritarra duten herritarrei **esperientziak partekatzeko plaza bat** eskaintzea.



6. Ondorioak


Eragileek kultur ekosistema aberatsa osatzen dute Orion. Eragileen hiru behar nagusiak espazioa, elkarlana eta herritarren aktibazioa dira.

Oparoa da Orioko eragile-ehuna; baina eragile guztien osasun-egoera ez da berdina. Orokortzerik ez badago ere, eta kasuan kasu beharrak desberdinak badira ere, esan daiteke eragileen hiru behar nagusiak honakoak direla:

- Espazioa
- Elkarlana
- Herritarren aktibazioa (erreleboa, bereziki).

Azken boladan udalarekin harremana asko hobetu dela baloratzen da. Hortik abiatuta, eta eguneroko inertziekin hausteko, ezinbestekoa izango da **instituzioen eta herrigintzaren arteko saretzean sakontzen jarraitzea**. Izan ere, kultur eragileen arteko zein eragileen eta udalaren arteko elkar ezagutza eta lankidetzaz funtsezko izango da epe laburreko erronkei aurre egiteko eta herriko kultur jardunari eusteko.

Beraz, **Orioko kultur ekosisteman herrigintza, elkarlana eta sinergia berriak bultzatzeko** gaur egun dauden **dinamikak sendotu edo egokitu** (Kultur Mahaia, kasu) **eta berriak sortu** beharko dira.



6. Ondorioak

Kultur arloan udaletik egiten den komunikazioa eraginkorra da. Hala ere, kanpo- zein barne-komunikazioan urratsak ematea komeni da; koordinazioa hobetzeko, eragileen jarduna sozializatzeko zein gain-programazioa saihesteko.


Kultur eskaintzaren zabalkundearen **emandako urratsak positiboki baloratzen dira** (agendaren koordinazioa egiten da, plazako pantailaren bidez ematen da honen berri, agenda euskarri fisikoan bidaltzen da, Karkara.eus eta Urola Kostako Hitzan argitaratzen da, baita udalaren sareetan ere...)

Ildo honetatik, ikusita kultur eskaintzaren berri izateko biderik erabilienak hedabideak eta sare sozialak direla, **garrantzitsua izango da komunikazio-estrategia eraginkorrek izatea** kasuan kasuko helburuei jarraiki.

Bestalde, **gain-programazioa saihesteko neurriak hartu beharra** nabarmendu da, horretarako beharrezko mekanismoak martxan jarriz (egutegi bateratua, whatsapp taldea, elkarlanerako aukerak sortzeko topaguneak...), eta, finean, komunikazioa hobetuz.

Gainera, badira euren jarduna herrian ezagutzera eraman eta taldera jende berria parte hartzera animatzearen beharra adierazi duten eragileak ere, eta, beraz, horretarako, **komunikazioa eta saretzea ezinbesteko tresna** izango dira.

Hori horrela, **barne- zein kanpo-komunikazioa hobetzeko, eta agendaren kudeaketan eta koordinazioan lanean jarraitzeko**, zein eragileek hori presente izateko, **kultur teknikariaren papera gakoa** izango da.



6. Ondorioak

Herrian kultur azpiegitura berri baten beharra eragile eta herritar guztiek partekatutakoa da. Ekipamenduen erabileraren eta hobekuntza proposamenen inguruan egindako hausnarketak oinarri, epe laburreko erabilerak eta egin beharreko esku-hartzeak definitzea komeni da.

Oro har, **eragile guztiek dute euren jardunerako edota beharretarako espazioa eskuragarri**, eta gainera, espazio horren mantenua eta gastua udalak hartzen du bere gain. Hala ere, **kultur azpiegitura berri baten beharra** eragile eta herritar guztiengandik jaso da, eta **espazioarekin motz gelditzen diren sentrazioa orokorra eta partekatua** baita. Kultur Etxea txikiegia eta zaharra gelditu dela uste da.

Espazio berri baten beharra aztertzeaz gain, **egun dauden espazioak birpentsatzea** ere lehentasunezkoa izango da. Hori horrela, herritarren eta eragileei premiei erantzuteko, argigarriak izan daitezke ekipamenduen inguruan jasotako proposamenak:

- Potentziala izan dezaketen espazioak (gehiago) aprobetxatzea eta herriari irekitzea: Ontziola eraberritua, Arraunetxea, Gaztetxea...
- Eguraldiaren menpe egon arren, kaleko espazioak gehiago erabiltzea, belaunaldiartekotasunari ekarpena egiten diotelako eta espazio irekiak direlako. Plazaz gain, beste espazio batzuk erabiltzea ere proposatzen da (Mutiozabaleko plaza, Dikeko parkea...), edota, kaleko espazioak babestea eguraldi txarra egiten duenerako.
- Eragileen jardunen bateraezintasunak eta bateragarritasunak aztertzea eta espazioen erabilerak horren arabera antolatzea.
- Ikasgela bat eskaintzea: ikasteko gune aproposa, ordutegi zabala eta internet konexioa izango duena.



6. Ondorioak

Eragileei zuzentzen zaizkien baliabide ekonomikoak, oro har, egoki baloratzen badira ere, kulturaren bueltan sorkuntza sustatzeko bestelako bideak aktibatzea egokia izan daiteke.

Oro har, kultur eragileek uste dute udaletik **elkarteentzat bideratzen diren dirulaguntzak egokiak direla**.

Honekin lotuta, aurrera begira, **dirulaguntzak eta hitzarmenak eragiteko tresna** ere izan daitezkeenez dirulaguntzaren izaeraren edota espezifikazio teknikoaren arabera **klausulak eta bete beharrezko baldintzak jasotzea gakoa** izango da.

Dena den, **kulturaren bueltan bestelako baliabide ekonomikoak aktibatzea** ere beharrezkoa ikusi da, ezaugarri hauek izan ditzakeena:

- Herriko ondare kultural eta artistikoari ekarpena egingo diona.
- Sormenarekin lotuta egongo dena.
- Beka gisa planteatuko dena, eta herritarrei zein herritik kanpokoei zabalik egon daitekeena.

Bestalde, festetara eta urtean zeharreko ekintzetara bideratzen den **aurrekontuaren gainean irakurketa bat egitea ere beharrezkotzat** jo da, festa edo **ospakizunek sustatzen dituen balioen gaineko** eta horrek herriari egiten dion ekarpenaz **hausnartzearekin batera**.



6. Ondorioak

Orioko kultur jardunaren indarguneetako bat da euskara, eta herriko kultur eskaintza, oro har, arnagune da.

Oro har, Orioko **kultur eskaintzan euskara da nagusi**, eta udaleko kultur politiketan lehentasunez tratatzen den den aldagaia da, beraz.

Ildo honetatik, badira **kezka sortzen duten gaiak**; besteak beste, gazteen kultur kontsumo joerak, ahozko ondare kultural eta sozialaren galera, gero eta testuinguru anitzagoetan hizkuntzaren kudeaketa, euskarazko kultur eskaintza guztientzat erakargarri eta inklusiboa izatea...

Gauzak horrela, joera globalek gero eta gizarte pluralagoa bultzatzen duten heinean, garrantzitsua izango da **arreta nortasun kohesionatzailean jartzea**, eta euskararen balio soziala aitortzea. Izan ere, hizkuntzetan arreta jarrita, hizkuntza hegemonikoen nagusitasuna nabaria da, esaterako, arlo digitalean; eta kultura ez da, inolaz ere, hortik erabat kanpo kokatzen.

Hori horrela, **atzerritar jatorriko herritarren kultura eta hizkuntzaren, eta euskal kultura eta euskararen arteko zubia egiteko estrategia hezitzaileak diseinatu beharko dira**. Era berean, garrantzitsua izango da, **euskararen eta euskal kulturaren transmisioan eragiteko** egun egiten diren ekintzak mantentzea, eta berriak sortzea.



6. Ondorioak

Kultur eragileen eta udalaren jardunean presente daude zeharkako begiradak (kulturartekotasuna, jasangarritasuna, feminismoa...); ez, baina, maila berean. Hori horrela, urratsak ematen jarraitzea beharrezkoa da.

Egungo kultur panoraman eta eragileen jardunean, oro har, **presente daude zeharkako ikuspegiak, ez, ordea, maila berean.**

- **Genero-ikuspegia eta ikuskera feministari** dagokionez, berdintasun-planaren bidez ere udal-politiketan urratsak eman direla uste da, baina garrantzitsutzat jotzen da **berdintasuna modu zabalean ulertzea eta ertz guztietatik heltzen jarraitzea**. Horretarako emakume erreferente arrazializatuak sustatzea, edota etengabeko pedagogia-lana egitea gakoa izango da, besteak beste.
- **Kulturartekotasun eta hizkuntza-aniztasunaren** ikuspegiei dagokionez, oriotar etorri berri askok herriko kultura natural bizi dutela uste bada, eta ekintza soil batzuk (Sahararena aldeko eguna, UEMAREN programaren garapena, adibidez) egiten badira ere, bidea egiteko dago. Gainera, jakinik kulturak adierazpide asko dituela (hizkuntza, mundu-ikuskerak, harremantzeko bideak...) eta, funtsean, komunitate bateko kide sentitzeko bidea dela, estrategikoa da alor honetan urratsak egitea. Testuinguru honetan, **herri gisa, euskara ere kohesiorako tresna izan dadin neurriak hartzen jarraitzea eta hizkuntza kudeatzeko estrategiak pentsatzea** garrantzitsua izango da.
- **Belaunaldiartekotasunarekin lotuta**, uste da **kalean egiten diren ekintzek gehiago ahalbidetzen** dutela belaunaldi desberdinen arteko harremana, eta, beraz, **horiek indartzea gako** izan daiteke.
- **Jasangarritasunari dagokionez**, azken urteetan **aurrerapausoak eman direla** eta kontzientzia areagotu dela uste da, eta eragileen aldetik arduratsu jokatzeko saiakera egiten bada ere, udalaren aldetik **gai honi lehentasunez heldu behar dela uste da**.



6. Ondorioak

Hori horrela, ikuspegi horietan guztietan eragiteko **OKEPEk ekintza zehatzak jaso beharko lituzke**, eta honakoak gakoak izan daiteke:

- **Kultura inklusiboa izateko** bidean, **interseksionalitatea** presente izateko neurriak. Horrek esan nahi du, generoaz harago, hizkuntza, adin, sexu, erlijio, klase edo jatorriaren arabera gurutzaketei eta horren ondoriozko botere-harremanei erreparatuko zaiela, eta horiei erantzuteko mekanismoak martxan jarri.
- **Dirulaguntza eta hitzarmenetan ikuspegi guztiak bermatzeko klausulak** txertatzea ikuspegi ezberdinetatik eragiteko
- **Festa ereduaren eta aurrekontuaren banaketaren inguruko hausnarketa** bat egitea
- **Modu kolektiboan pentsatzea**, eta kultur eragileez gain, **kultur dinamikara herriko bestelako eragileak eta kolektiboak** (Herri natur-taldea, Saregile, LGTBIQ+ kolektiboa, etorri berriak, hezkuntza-zentroak...) **erakartzea** eta ikuspegi komunitarioarekin aritzea, herritarren bizi-baldintzak hobetzeko.